

2010 EFQM eredu berria

EFQM ereduaren sakoneko berrikusketa eta gero aldaketa garrantzitsuak burutu dira ikono berri batengaitik hasita; 8 kontzeptu nagusi, 9 irizpide eta RADAR matrizearen arteko integrazioa adierazten duena.

Hiru elementu hauetan burutu diren aldaketa nagusienak honako hauek dira:

- **Oinarrizko 8 kontzeptuak** mantendu egin dira, baina izenburu berri eta dinamikoago bat eman zaie. Gainera, edukia aberastu egin da, eta modu egituratuago batean aurkezten da.
- **4 emaitza irizpideak eta 5 eragile irizpideak** mantendu egiten dira, baina orain izenburu egokiago bat dute, barne koherentzia altuagoa eta edukiak gaurkotu egin dira. Era berean, ponderazioa errazagoa eta orekatuagoa da.
- **Emaitza eta Eragileentzat RADAR matrizearen elementuei** dagokionez, aldaketa garrantzitsuak eman dira hurrengo atal hauetan:
 - Emaizten etekina ebaluatzeko erabiltzen diren aplikazio eremuaren atributuak.
 - Eragileen irizpideak ebaluatzeko erabiltzen diren atributuak aberastu egin dira efizientzia, sormena eta aukera bezalako kontzeptuekin. Kontzeptu hauek “ikuspegia” “hedapena” eta “ebaluazioa eta azterketa”-hirukotean integratzen dira.

EFQM 2010 Ereduak ebaluatzaileengan eta hautagaiengan izan dezakeen eragina honako hau izan daiteke:

- **Ebaluatzaileak:**
 - Emaizten irizpideetan **datuen kalitatea eta adierazgarritasuna** ulertu eta adosterako orduan ahalegin berezi bat egitea, izan ere, Ereduaren bertsio berrian garrantzi handiago hartzen baitute, RADAR matrizean egon diren aldaketen ondorioz.
 - **Ikuspegiaren efikazia eta efizientzia** kontutan hartu pertsonekin elkarrizketak burutzerako orduan.

- **Jasangarritasunaren inguruko elementuak eta etorkizuneko etekinen maila** kalkulatzeko moduak jarri behar dituzte martxan.
- Erakundeak eragileen irizpideetan duen heldutasun maila ulertu ahal izateko, ebaluatzaileek nabaritasun mota ezberdinak hartu behar dituzte kontutan, ez bakarrik ukitu daitezkeen nabaritasunak.
- **Hautagaiak:**
 - EFQM Ereduan maila altua duten erakundeei, beren indarguneak azpimarratzea eta agerian jartzea errazten zaie.
 - Maila baxuagoa duten enpresentzat aldiz, EFQM Eredu berria inspirazio iturri izan daiteke hobekuntza planak ezartzerako orduan.